

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 269. zenbakia. 2018ko uztaila



**Festa doinuak nagusi
SANTIXAUETAN**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 174344 • ugaro@ugaro.com

Agente eskusibook:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa Elkarte
Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Dorleta Vidal,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Santos Vega.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Marijo Montoya,
Jesusa eta Digna
Garitaonandia,
Santos Vega,
Mikel Taboada,
Txabi Arnal,
Gaizka Areitioaurtena,
Valentin Mugarza,
Maialen Alvarez,
Alazne Aiestaran,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Piedi
Eizagirre eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Agon gon (Entzuteko: www.alboka.es)

Agon gon Maria gon gon
txibiri biri gon gon,
agon gon Maria gon gon
txibiri biri gon gon.
Amaia Julen txibiri biri gon gon
Amaia Julen txibiri biri gon gon.

Agon gon Maria gon gon
txibiri biri gon gon,
agon gon Maria gon gon
txibiri biri gon gon.
Lorea Ander txibiri biri gon gon
Lorea Ander txibiri biri gon gon.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4
Marijo Montoya (Higganum, AEB)

ELKARRIZKETA5-7
Felix Moreno

MALLABIAN ZER?8-9
Jesusa eta Digna Garitaonandia

ERMUAN ZER?10
EAG zerbitzua Eibarrera?

SANTIXAUAK..... 11-14
Egitara

KIROLZALE15
Mikel Taboada, kirol-argazkilaria

MOTZEAN.....16-17

Debabarrena elkarlanean Euskaraldiarekin

IRITZIA18-19
Txabi Arnal eta Maialen Alvarez

ANTZINAKOAK.....20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK.....21
Saldu, erosi edo agurtu

ABUZTUKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Marijo Montoya

Paris maitasunaren hiria izanik, maitasuna izan behar zen nahita nahiez Marijo Montoya Paris ingurura eraman behar zuen arrazoia. Frantziar bat ezagutu eta 1995ean maletak egin eta Colombesera joan zen, Parisetik hamabost minutura dagoen hirira. Familia osatu du han, bi alaba ditu, eta Ermua asko maite eta faltan botatzen badu ere, han du bere bizitza. Gainera, Parisek liluratuta dauka, ederra dela deritzo.

-Zergatik joan zinen Ermutik
Nire lagunekin oporretan nengoenean mutil frantziar bat ezagutu nuen eta maitemindu egin ginen. Harremana mantendu genuen eta handik bi edo hiru urtera erabaki bat hartu behar genuen: elkarrekin jarraitu edo harremana utzi. Beraz, Frantziara etortzea erabaki nuen. Ermuan nire familia eta lagunak nituen, baina besterik ez, eta 23 urte nituenez, arin hartu nuen erabakia. Ondo irtetzen bazen, ederto, eta bestela etxera bueltatuko nintzen eta kitto.

-Ondo moldatu zinen hango bizimodura?

Hasiera oso gogorra izan zen. Ez nuen frantsesez hitz egiten eta aldaketa oso handia izan zen. Eric nire senarra zen (orduan nire mutil-laguna zena) hemen neukan pertsona bakarra eta berak lana egin

behar zuenez, bakarrik gertzen nintzen egunean zehar. Bere familiak ez zuen gaztele-raz egiten, baina bere amak eskutik hartu eta hara eta hona eramaten ninduen.

-Nola ikasi zenuen frantsesez egiten?

Nire herrian frantsesezko ikastaroak ematen zituzten atzerritarrentzat. Zentzu horretan ere alde handia zegoen Ermuarekin. Izan ere, sasoi hartan Ermuan ez zegoen ia atzerritarrik, baina hemen nazionalitate guztietako jendea zegoen. Nahiko txiki sentitu nuen nire burua. Frantsesa ikasi nuen, baina niretzat hori ez zen zailena izan, hango bizi-modura egokitzea baizik.

-Zein zentzutuan?

Adibidez, euren bizitzarritmoa, kafe bat hartzera irten nahi izatea eta ez nuelako jendea ezagutzen ezin izatea... Ermuan taberna batera joan



eta beti zegoen ezagunen bat. Hemen taberna batera bakarrik joanez gero, mozkorra naitzela pentsatuko dute. Ermuko lagunekin neukan harremana hemen inorekin ez eduki ahal izatea oso zaila izan zen niretzat. Negar asko egin dut.

-Hala ere, han bizi zara oraindik. Ohitu zinen azkenean?

Bai. Ezkondu egin ginen eta hiru seme-alaba izan ditugu. Ez naiz batere damutzen hartutako erabakiaz. Gauza asko ikasi ditut. Alaba nagusia jaio zenean nire bizitza aldatu egin zen, hemen herritartu nintzelako. Nire familia Frantzian neukan momentu hartatik aurrera. Ordutik, Ermura bisita egitetik hona itzultzen nintze-

nean ez nuen hainbeste negar egiten.

-Ermura bizitzera itzuliko zinateke?

Orain Ermua nahiko herri txikia egiten zait, hiri handiago batean bizitzera ohitu naizelako. Hori bai, Ermuko jendea ekarriko nuke hona. Poz-pozik joaten naiz bisitan eta etxean sentitzen naiz han. Ezberdin sentitzen naiz, naizen modukoa, Marijo. Hemen ondo nago, baina Ermua da nire etxea. Hala ere, nigan zerbait aldatu da eta hona bueltatzeko beharra sentitzen dut, nire familia hemen daukadalako. Nire seme-alabek ere Ermua oso gustuko dute, baina nahiago dute hemen bizi.

Ekhi Belar

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Felix Moreno, Urkiolako Abadexearen arduraduna:

“Lana da, baina oparia da Urkiolan bizitzea”

Urkiolatik jaitsi eta kafea hartu du gurekin Felix Morenok. Urkiolako zaindaria da bera, euskaldunentzako hain berezia den mendia txukun mantendu eta erakargarria bilakatzeko ardura duen pertsona. Beste askorentzat bezala, Felixentzat ere toki magikoa da Urkiola eta pozik bizi da emaztearekin han. Urkiola are erakargarriagoa egiteko proiektuen berri eman digu eta, bide batez, bisita egiteko gonbidapena egin ere. Zain daukagu Urkiola.

- *Zein da zure lana zehazki?*

Elizak 15 hektarea ditu Urkiolan. Erabilera publikoa duen lur pribatua da eta Urkiolako Parke Naturalaren barruan dago sartuta. Parke guztiak igarotze-guneak dauzkate, hau da, komunak, aparkalekua, tabernak eta abar, eta nire ardura Urkiolako gune horiek zaintzea da. Eliza, Abadetxea, hotela, aterpetxeak eta Urkiolan dauden txokoak zaintzen ditut auzokideekin Urkiola bizirik mantentzeko.

- *Mantentze-lanak dira?*

Mantentze-lanak egiten ditut, baina ez hori bakarrik. San Anton eta San Antonio jaiak prestatu, ekintzak sustatu, mendizaleekin jarduerak egin, aterpetxera jendea ekarri... horrelako ekintzak egiten ditut. Gainera, eliztarra naizenez, jende asko etortzen da kartzelatik, paperik gabe daudenak, eta gure aterpetxean jasotzen ditugu. Proiektu baten barruan sartuta daude eta egin beharreko lanak Urkiolan egiten dituzte. Halaber, ikastolak eta beste talde batzuk ere etortzen dira. Orduan, hori guztia kudeatzen saiatzen naiz, eta Urkiola

bizitu eta bultzatzeko ardura ere badaukat. Urkiola toki magikoa da. Mari egon da hor kristauak etorri baino lehen eta bertan jarraitzen du. Kristauak 1.000 urte daramatzate Urkiolan, Iberiar penintsulako iparraldetik sartu zirenetik. Bada bai lehen, orain eta etorkizunean ere euskaldunak bertara joango gara. Zertara? Jaungoikoarekin edo dena delakoarekin itunak egitera, eta orain gu gaude, euskaldunak eta eliztarrrak.

- *Eliztarra zarela aipatu duzu, baina ez zara abadea edo apaiza, ezta?*

Ez! Ezkonduta nago eta bi seme ditut.

- *Zurekin bizi dira Urkiolan?*

Emaztea bai, baina semeek ikasketak egin dituzte eta lanean dabilta, eta ez dira gurekin bizi. Emazteak Gasteizen egiten du lana. Izan ere, lana eta maitasuna ez dira nahastu behar. Tira, egia esan Urkiolan ere lan egiten du, bertan egin beharreko lana ez delako 8 ordukoa. Urkiolan bizi egiten gara, ez dugu bakarrik lana egitem, eta telefonoa beti dago martxan. Lana da, baina oparia da

“Urkiola toki magikoa da”

Urkiolan bizitzea. Egunero han jaiki eta Urkiolak eskaintzen duena ikustea demasekoa da.

- *Noiz hasi zinen lan honetan?*

Orain dela bost urte hasi nintzen. Beti eduki dut harremana elizarekin eta 12 urte egin nituen Proyecto Hombren, elizarekin lotura duen erakunde, lanean. Gero kanpoan ibili nintzen eta Euskal Herrira bueltatu nintzenean nire perfila zeukan pertsona baten bila zebiltzala esan zidaten. Euskalduna, martxarekin... eta Urkiolako proiektua eskaini zidaten. Nire burua Urkiola bultzatzeko gai ikusten nuen galdetu zidaten eta baietz erantzun nuen. Gainera, familia daukat Ermuan eta eurengandik hurbil egoteko aukera izango nuen. Hotelean hasi nintzen eta hiru urte egin nituen han buru-belarri. Orain familia batek hartu du hotelaren ardura.

- *Nolako lanak egingo dituzue Urkiola bultzatzeko?*

Batetik, 60 pertsonentzako aterpetxea egin behar dut orain eta horretan nabil Abadiñoko Udalarekin. Gero, denda bat jarri nahi dut inguruko ekoizleekin. Toledoko pertsona bat Urkiolara badator, San Antonioren iruditxo bat erosi dezake, baina hemen ekoizten den gazta, eztia, sagardoa edo dena delakoa eskaintzea nahiko genieke. Urkiola ikur garrantzitsua da Euskal Herriarentzat eta hori ikusarazi nahi dugu. Lehenik, euskaldunei esan nahi diegu hemen gaudela, betidanik, eta kanpotik datozenei “hau gara” esan nahi diegu. Historian zehar igarobide garrantzitsua izan da Urkiola.

- *Gutxi aldarrikatu izan da Urkiolaren garrantzia?*

Ez dut uste. Urkiolako bere historia dauka eta garrantzitsua da. Santutegiak 120 urte bakarrik ditu. Aurretik bi basiliza egon ziren. XVI. mendean egin zen lehen eliza potoloa eta honek 120 urte ditu. Gaur egun duen tamainaren bikoitza eduki behar luke, baina Jaungoikoa argia da eta zera esan zuen: “Lehenengo Kuba galduko dute, gero Filipinas, gero diktadore txiki bat bidaliko diegu (Primo de Rivera) eta gero galiziar txiki bat (Franco)”. Orduan, dirua amaitu zen eta dagoen moduan utzi zuten eliza. 70. hamarkadan misiolariak hartu zuten santutegia zaintzeko ardura eta euskararen bo-



“Urkiolak etorkizunaren olatua hartu behar du”

rrokarekin berriz burua altxatu zuen Urkiolak. Orain toki erreferentea da kirola egiteko, perretxi-koak hartzeko, egun-pasa joateko... Euskaldun orok ezagutzen du Urkiola non dagoen.

- Urte hauetan Urkiolan egindako lanen emaitza ikusten hasia zara?

Gure lanen emaitzak epe luzera ikusiko direla uste dut. Urkiolak etorkizunaren olatua hartu behar du. Nire garaian egun osoko txangoa izaten zen Anbotora joatea. Trena hartu, atzamarra egin, igo, bokadiloa jan... Gaur egun kotxea hartu eta berehala heltzen zara. Ordu-

lari modernoa aktibatu, igo, jaitsi eta eguerdirako Ermuan zaude marianittoa edaten. Aisialdiaren kultura eta naturarekin dugun harremana aldatu da, baina Urkiola beti egongo da hor. Urkiolara joaten den jende guztia zerbaiten bila dabil, nahiz eta batzuk ez dakiten zeren bila dabiltzan ere. Perretxi-koak, lasaitasuna, ba-kea, naturaz gozatzea, gauza magikoak... edozein gauza aurkitu daiteke Urkiolan eta horregatik zaindu egin behar dugu. Bila dabiltzan horiek ipuinetako heroiak izango litrateke eta gu ipuin horietan agertzen diren gida-



riak, horrela ikusten dut behintzat nire burua.

- Zeintzuk dira esku artean dituzuen erronka nagusienak?

Turismo arloko plan bat onartu berri da inguruan, eta Urkiola sartu behar dugu hor bere esentzia galdu gabe eta inguruko herriak bultzatuz. Horretarako, ekintzak konkretatu behar dira. Adibidez, Urkiolan ez dago tokirik

autobus batentzat, 60 pertsonentzako aterpetxea eraiki nahi dugu, Urkiolara etortzen diren taldeekin (mendizaleak, txirrindulariak...) urte osoko programa osatu nahi dugu... Urkiola hor dagoela eta denontzako aukera dela aldarrikatu nahi dugu.

- Beraz, gustura Urkiolan?

Oso gustura! Ermua nire herria da, ermuarra izateaz harro nago, baina mendia utzi eta herrira jaistean zaratak eta bizimodu azeleratua nabaritzen ditut. Orduan, Urkiolan gora noanean etxean sentitzen naiz, gustura.

- Lasaitasun beharra zeneukalako zaude Urkiolan?

Argi daukat dei bat izan dela. Ez dakit ziur zer izan den, baina horrela izan da eta galdera batzuek ez dute erantzunik behar. Pozik nago, oso pozik.

Ekhi Velar



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELJETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMU 3-943170563
 ER.MUA

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Raketista lez bizimodua etaraz

Jesusa eta Digna Garitaonandia Mallabiabarrena neskatotxuten ekin otsien raketan jokatzia. Digna Bartzelonara jun, bertara ezkondu eta hantxe hartu gaittu, pozarren, kontu-kontari. Blanka, Jesusan alabiak, afari-merixenda gustosuan inguruen amari entzundakuek ekarri doskuz akordure Zaldibarko bere etxien.

Bolara onak zien raketandako; Eibarrren bakarrik 3 eskola euazen. Profesional maillara aillegau eta andrazko askoi gustoko gauza bat eñaz bizimodue etaratzeko aukerie etorri jakuen. Zaletasunoi inguruko herrixetara be zabaldu zan eta, txiripaz ez bada be, Mallabiko San Trokaz base-rriko bi ahiztak gazte-gaztetan lotuko zian pelotiai. Digna hasi zan lehelengo; politto kontatzen dau berak, "Eibarrera esniek par-

titzera juten nintzen eta gustatzen jatan esniok partidutakuen Astelenara jutie, Aixpeko Pilar eta Iturraldeko bikixek, Maria eta Jesusa, bertan jokatzien egoten zien-eta. Andra bat euen garbittaziñoiek-eta eitten eta behin esan notsen ia raketaik lagatzen eban. Pagaute baietz. Amak pagatxo bat emoten osten, etxera orduko bokadilloren bat erosi eta kopoutxo bat eittete; haxe eskindu notsen kantxeriai eta konforme geratu zan. Egunero bardiñe gero! Desiatzen egoten nintzen frontora juteko! Uiiii, gustatzen jatan pelotioi! Baina gero baraurik etxera! Argal-argal neuen; hargaittik ipiñi ostien gero Chiquita de Mallabia! Je-je!".

Laster etorri jakon be Bartzelonara juateko eskintzie. Eta Bartzeloniori nun euen bez! "Baina etxera lotara etorriko naz, ezta?" irribarretsu gogoratzen dau frontoira etorritako hari gizon dotoriai eindako galderie. Bera ez zoiela bestelan. Baina aitte Pedroaz berba ein pajaritadunorrek, eideko proposamena egoki



Jesusa Garitaonandia (eskuman), 1942en Bartzelonan

ikusit etxeok eta, neskatuaz berba eñ ostien, urte beterako jutekotan geratu zien. 16 urte betetzeke eta hurrengo Gabon egune etxetik kanpo pasatzeko penatxue aldien, 1939ko febreruen 20xen aillegau zan Mediterraneo ertzeko parajiotara; bertakotute, hantxe jarraitzen dau ixte 80 urte berandua.

Bere debuta edarto gogoratzen dau Dignak "urten neban frontoira eta obaziño itzelaz hartu ninduen. Harek txaluk hazi eragin ninduen, harrotu-edo eta ein neban partidu bat... ikusgarrixe!". Luzimendu harek aukerak zabaldu otsazen eta partidu gehixao ekarri. Beran esanetan "gustau eitten jatan jokatzie, baina suertie be euki neban eta apurka-apurka igo ein neban". Urtie txirritxirri bete eta etxerako bidie be hartu eban; sendo apremixau ostekuan ordai-

ñez, patrikatxue epel txamar ekarrela eta pozik. "Lehelengo urtien etorri nintzenien, neu mantenidu, neu jantzi eta abarrok ein ta gero, aittai 1.000 pza. entregau notsazen. Geratu zan... paraute! Eta egun batzutara esan osten: 'Pentsatzen egon naz eta hurrengo Jesusa be zeuaz doie'. Eta halantxek etorri giñen bixok".

Bartzelonan bizl

5 frontoi eukittekue da Bartzelona, 2 gizeonekue-nak eta 3 andrazkue-nak. Dignak Nuevo Mundo eta Condalen jokatu eban raketistie izan zan 8 urte pasautxuetan; Jesusak bizpahiru urte emon zittuen Katalunia inguruen. Sol y Sombra frontoien eñ eban bere debuta, Areitio izenakin, bere jaixotetxeko auzue goguen beti. Alkarrekin bizi zien ahizta bixok, Blankak amari entzunde kontatzen doskun



Digna Garitaonandia, 1947an, ezkondu zaneke egunien.

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DROGETEN

Publizitatea:

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com



lez, "5-6 neska bizi zien pisu baten, Pepe eta Pepitanien, seme-alaba bako andra-gizon batzuenien. Han etxien orden haundixe euela esaten eban gure amak eta erretiratzeko orduak be zaindu ein biher izaten ziela. Frontoiek gaiñera pertsona bat ekan eurretaz ardurutzen zana, partidu aurretik bille juen, haren ostien etxera ekarri..."

Entrenamendu edo partidurik ez ekenien, tarteko harek orduak bete ein biher. Blankak etxien entzunda ekanaren harire "denporie emoten eben kaltzetiñek eitten, irakurtzen eta zinien, amai asko gustatzen jakon zinie. Bartzelonara juetiek eta beste batzukin konbibtziek bere pentsatzeko modue zabaldu erañ otsen, normalidade osuaz eitten eta ikusten zittuen gauza asko eta oso harro euen han egondako denporiaz eta bizi izandakuaz. Hainbat bider esaten eban maletie hartu eta gustora juengo litzatekela bizi izatera Bartzelonara. Hango bizimodue, indibidualidade, kapitaltasun hori... herri txiki batetik juenda, estimatzekuek".

Jesusa Mallabira bueltau zan. Urte batzutara Aitxuko Juan Onaindiarekin ezkondu eta Zaldibarren jateko-dendie zabaldu eban. Bueno, jatekotik aparte danetik ekan apur bat, orduko denporetako denden estilora.

Digna Bartzelonan geratu zan eta jotzen jarraitu eban. Delanterie zan, bizkorra, sake onekue eta jokuen bariarizio askoko pelotarixe. Begi-keiñue ein eta pikardixatxo batzuk eitten be ikasi eba aitortzen dosku, kontrari-

xie jokoz kanpo lagata honek nahi baiño sarrixao. Orduko kirol-prentsan bere partiduen eta emaitzen aittamena eitten da, beti be Chiquita de Mallabia gatzizenakin. Eta Mallabiko bari astero aillegatzen jakon konferentzia bidez: aitte Zaldibarko Fondara bajatzen zan domekero alabiakin berba eitteko; Bartzelonako Telefonian eguerdiko hamabixetan puntual eta kale ein barik egoten zan Digna, jakinguraz eta ze kontauaz beteta.

24 urtekin ezkondu zan Manolo Cárcobakin, Kantabriako Miera herriko semea eta garraio enpresa bateko jabea Bartzelonan. Orduntxe laga otsan raketan jokatzia. Sarri etorri die andra-gizonok Mallabire; Andramarixetako bueltatxue ez dau Dignak parkatu. Datorren bakotxien, gustora eta maittatue sentitzen dala aittatzen dosku.

Orduko denporetarako eta andra moduen eindakuek gorai-pamena berterik ez dau merezi, Blankak bere buari sarri esandakuen berbei jarraituz "balixo haundixe daka eiñ ebena: baserriko alabak izatetik, juen hara, ezagutzen ez daben leku batera, bizimodue etara euren biherretetik, konsideraute egon... Beste modu batera ikusitte euazen, bai onerako eta txarrerako. Ni ointxe konturatzen naz zer suposatzen daben horrek eta uste dot ez raketisten kolektibuek ez dabela euki bihar besteko errekonozimendurik". Mallabitar guztiena presente eitteko, balixo deixela honek bi orritxuok.

Estibalitz González

ANDRA MARI JAIK

ANDRA MARI JAIK 2018

ABUZTUAK 14

11:30-13:00 Mallabiko Trikitilariak
12:00 Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak
12:30-14:30 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea: puzgarriak, jumping... herriko frontoian
18:00 Bits festa parkean
18:00-21:00 Kale animazioa Rockalean txarangarekin
19:00 Txupinazoa, Jasokunde abesbatzaren eskutik
19:30-21:00 Txokolatada plazan eta ondoren IV. Adarra jotzea
21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean
Bakaikoa - Erasan // Laso - Iturriaga
Urrutikoetxea - Aretxabaleta // Elezkan II - Larunbe
23:00 Erromeria Gora Herria taldearekin, plazan]

ABUZTUAK 15

11:00 Meza Jasokunde parrokian
Ondoren plazan (euria bada herriko frontoian)
Omenaldia 90 urtetik gorako Mallabitarrei (Mallabiko Hirugarren Adineko elkarteak)
Mallabiko dantzariak
17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrean
17:30 Mallabiko XXVIII. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia Mallabia I Kirol Etxean.
19:00 Patas arriba kale antzerkia parkean
22:30 Kontzertua Kalakan taldearekin parkean

ABUZTUAK 16,

11:00-14:00
PAELLA eta MARMITAKO lehiaketa
PATATA-TORTILLA lehiaketa 16 urtetik beherakoentzat izango da lizen ematea 11:30ean
Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa
12:00 Meza, Jasokunde parrokian
14:00 Paella, marmitako eta patata-tortilla lehiaketako sariak banatzea
14:15 Jubilatuen bazkaria kontzejuzarrean
16:00 Bilbainadak Iñaki Basabe kantariarekin jubilatuentzat Kontzejuzarrean
17:30 Koadriren arteko jolasak
20:00 Mallabitar guztientzat txerri errea datatzeta (2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan
20:30 Erromeria Luhartz taldearekin plazan



ORBE TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com





SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak



Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



CAPRI

PIZZERIA

943 03 33 15

Anbulatorioko EAG zerbitzua Eibarrera pasa nahi dute

Urriaren erdialdean irekiko ditu ateak Eibarko Ospitale berriak eta ermuarrek igarriko dute. Epe-ertain eta -luzeko pazienteak, Eibarko Torrequako ambulatorioko zerbitzuak eta Eibar eta Ermuko Etengabeko Arreta Guneko (EAG) zerbitzuak hartuko ditu zentro berriak. Hori dela eta, Ermuan EAG zerbitzua emateari utziko zaio eta arreta horren beharra duten Ermuko gaixoak Eibarrera joan beharko dira.

Ermuko EAG-ko mediku, erizain eta beste-lako langileak arduratuta daude azken asteotan jaso duten berrieekin. Debabarrenako Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Pertsonal Zuzendariak Eibarko Ospitalearen proiektuaren berri eman zuen Gipuzkoako sendagileen Mahai Sektorialean uztailearen 3an eta kezka piztu zen langileen artean. Ermuko EAG-ren zerbitzua Eibarrera pasatzea ermuarrentzat oso kaltegarria dela uste dute langileek eta hainbat zailantza sortu zaizkie.

Osasun-zentroaren ordutegitik kanpo (arratsaldeko 17:00etatik hurrengo eguneko goizeko 08:00etara) edo jaiegun batean premiazko arreta behar izanez gero, Osakidetzak eskaintzen duen Ospitaleaz kanpoko Premiazko Arreta Gunek dira EAG-ak. Horrela "24 orduko zerbitzua" eskaintzen dela adierazten dute langileek. Bizitza arriskuan jartzen ez duten premiazko kasuak artatzen dituzten zentroak dira, osasun-zentroen laneko ordute-

gitik kanpo. Bada, gaur egun zerbitzu hori eskaintzen da Ermuko ambulatorioan, baina urritik aurrera zerbitzu hau Eibarko ospitalean ematea da Osakidetzaeren asmoa. Hala ere, Ermuko ambulatorioko langileek argi utzi nahi dute Eibarko ospitalean ez dela egongo espezialitaterik edo zirujaurik. "Gainera, oraindik ez dago definituta zein zerbitzu eskainiko diren", azpimarratu dute.

Eibarrera zerbitzua jasotzera

Ermuko EAGko langileek euren kezka azaldu digute. "Eibarko ospitalea ez da berez ospitale arrunta izango, Mendarokoa bezala. Gaixo kronikoentzako zentroa izango da eta ez da larrialdietarako zerbitzurik emango. Orduan, EAG-k ematen duen zerbitzuari dagokionez, Ermuan eskaintzen dugun zerbitzu bera eskainiko du". Horregatik, zerbitzu hau jasotzeko Eibarrera joan behar izatea oso deserosoa eta desegokia izan daitekeela salatzten dute langileek. "Ermua-



rrek hau guztia jakin beharko lukete, eurentzat ez delako berdina izango aldapa bat edo eskailera batzuk igotzea, edo ahal den moduan Eibarrera joatea".

Eibarko eta Ermuko ambulatorioetan errefortzu bat uztea da asmoa. "17:00etatik 00:00etara, baina hemen bi talde utziko dituzte (mediku eta erizain batek osatzen dute talde bat) eta egun bat bai egun bat ez egingo dute lan, eta asteburuan gauza bera". Ermuko ambulatorioko langileek diotenez, erabaki honek arazoak ekarriko ditu. Izan ere, eurek azaldu duten bezala gaur egun, "zorionez", aukeran daukate lana eta haien iritziz inork ez du aukeratuko txanda horietan lan egitea. "Ondorioz, arduradunek esango dute ez dutela langilerik aurkitzen errefortzu hori betetzeko eta azkenean zerbitzua kendu egingo dute, Eibarkoa 24 orduz zabalik dagoela argudiatuz".

Herritarrek Informatu

Eibarko eta Ermuko EAG-ren bateraketarekin zentro bat aurreztu nahi dutela diote Ermuko langileek. Gaur egun lau taldek egiten dute lan ambulatorioan. Langileak sindikatuarekin lanean ari dira euren egoera berria zein izango den jakiteko. "Plaza daukatenek lan-baldintza eta eskubide batzuk dituzte, eta proposamen berriarekin euren egoera aldatu egingo da".

Abuztuko oporrak aurrean daudenez, ambulatorioko langileek ezinbestekotzat jotzen dute herritarrei prozesu honen berri ematea. Udalarekin berba egiteko asmoa daukate, baina alkate aldaketak atzeratu egin du euren nahia. "Guk nahi duguna da, gutxienez, herritarrei azaltzea zein izango den urrian aurkituko duten egoera berria eta eurek erabakitzea gure proposamena bultzatu nahi duten edo ez. Gutxienez herritarrek ez eginaiztea", argitu dute.

Ekhi Velar



Drogeteniturrri, 269 zk.



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

ONDO PASA SANTIXA UETAN!

Argazkiak: Ekhi Velar.

UZTAILAREN 24a, ASTEARTEA

- **17:00** Patxi plazan, **JAI-OPARI BANAKETA** Drogomenpekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocados musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00 / 04:00 DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Pasarela orkestrarekin.

- **23:00 / 2:30** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **ROCK JAIALDIA**.



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

WiFi



KARABIKA

KARABIKA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



MOLOIKO
cafe lounge



UZTAILAREN 25a, ASTEAZKENA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30** Plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00 BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2018 SARIA**, Ermuko eta Eibarko Bolo-Palma elkarteen artean.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURREN-TZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patroiairen omenez.
- **12:30 HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Harri-jasotzaileak: Inaxio Perurena, Haritz Ureta eta Karmele Gisasola. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta, Ioritz Gisasola, Julen Larrea eta Alex Txikon.
- **12:30 KALEJIRA** The Joselontxo's txarangaren eskutik.



- **17:00** Aritzmendin **PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK**:
1. partida: Elordi-Erostarbe / Etxeberria-Tolosa.
2. partida: Elezkano II- Rezusta / Ezkurdia-Zabaleta. Antolatzailea: Ermuko Pilota Taldea.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.
- **19:00** Orbe kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangarekin.
- **20:00 LARRAINDANTZA** herrikoa Orbe Kardinalaren plazan.
- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan **EUSKAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.
- **22:30** Golden Apple Quartetek **MUSIKA IKUSKIZUNA** San Pelaioko plazan.
- **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano show orkestraren **DANTZALDIA**.
- **23:00 / 4:00** Martxoak 8 plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **TECHNO JAIALDIA**.



ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**
Kafé & Deliss
Tfo.: 943174612



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
5€ tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...
Tel. 943 17 15 57
ERMUA



KARIKATO
TR. KANTABRIA N°1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)



infretaberna
Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584




BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

UZTAILAREN 26a, OSTEguna

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30 BARRUS** partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAU-RRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- 12:00 **NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta **SARIAK** entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **13:00** Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14:00** merkatu plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **18:00 ESKUPILOTA** partidak Orbe Kardinalaren plazan, Ermuko Pilota Taldeak antolatuta:
 - Gazteen 4'terdiko partida.
 - Neskeen arteko partida
 Larrabetzu neska pilotarien elkartearen partaidekin.
 - Afizionatuen binakako partida.



- **19:00** Patxin eta Potxinek **PAILAZO IKUSKIZUNA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **19:00 KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19:00 KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.
- **20:00 LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **22:30** Valentziako Maduixa taldeak "Mulier" **DANTZA IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaio plazan.
- **23:00 / 4:00** Montecristo Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.



ER ZT
Ondo pasa
Santixauetan!!




esonline[®]

+ @ + TV +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esonline.es



UZTAILAREN 27a, OSTIRALA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30 BARRUS** plazako pilotalekuan.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **10:00 / 11:30** Arrozaren banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** ezagunari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzailea: Lobiano Gastronomía elkarte. Laguntzailea: Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarte.
- **11:00** Martxoak 8 plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztientzat, Nagusien Etxeak antolatuta.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **12:30 KALEJIRA** Ustekabe txarangaren eskutik.
- **13:00 KALEJIRA** Macjeara,s Jazz banden eskutik.
- **14:00** paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

- **18:00 ERROMERIA** Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **19:00 KALEJIRA** Ustekabe txaranga.
- **19:00 KALEJIRA** Macjeara,s Jazz banden eskutik.
- **19:00** paella lehiaketaren epaimahaiak **IRABAZLEAK** ezagutaraziko ditu eta **SARI-BANAKETA** egingo da Orbe Kardinalaren plazan.
- **19:15** Orbe Kardinalaren plazan, **AURRESKU ETA LARRAINDANTZA** herrikoia.
- **20:00 ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.
- **20:30 KALEJIRA** Frantziako Funky Style Brass eta Argentinako Desmadre Orkestarekin.
- **23:30** Irulitxa musika-bandaren **ONGIE-TORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **00:00 SUZIRIAK** Zaragozana piroteknia-
ren eskutik Ongaraiko parkean. Ondoren **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK**.
- **00:30 JAIEN AMAIERA** Los Diablos taldeak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta erailina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

IAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Bitsi-denda Tailer propioa Eteju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Ferretería
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 94

fisioterapia
 eta osteopátia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13, behe
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí
SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL
 Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264
 - P.A.D.I
 - IMQ
 - SANITAS
 - DENTYRED
 - AZKARAN
 - OCASO
 ☎ 943 17 04 04
 ✉ info@clincasanpelayo.com
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatría
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 · Elikagai biologikoak
 · Terapia naturalak
 · Naturopatarekin kontsultak
 · Masajeak
 · Dietistarekin kontsultak
 · Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak **TXIKURIXA** zabalduko dute aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu,
deitu 688632874 telefonora

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

aTaRa ZARaTa!



Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN
Euskal Birusa Elkarte



**Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!**



Helduentzat: 10€



Umeentzat: 8€